

ERREFUXIATUAK. 1994. urteko otsailean Parisko konfinamendua utzi zuenetik klandestinitatean izan da

Jose Luis Arrieta 'Azkoiti' hil da

1969an 25 urte zituela ihes egin zuen eta 1986an atxilotu zuten lehenengo aldiz



EGUNKARIA

Jose Luis Arrieta, 1992. urtean Paueko Auzitegirako bidean zeramatemala.

SOKOA AUZIA

1986. urtean Sokoa auziarekin zerikusia zuelakoan atxilotu eta espetxeratu egin zuten

KONFINAMENDUA

Espetxe zigorra bete ondorengo urteetan Perpignanera, Tolosara eta Parisera konfinatu zuten

ZIGORRA

Pariseko Entzutegiak, errebel-dian epaiturik, betiko kartzela zigorra ezarri zion 1998ko azaroan

ustezko kide Clement Perret-en 1985eko hilketari buruz galdekatua izateko. Espainiako Gobernua, auzi beragatik, *Azkoiti*-ren estradizioa eskatua zuen.

1994tik sasian

1993an bertan behin-behineko askasunean utzi zuten berriro, eta Parisen konfinatu, aldika epailearen aurrean agertzeko aginduekin. 1994. urteko otsailean, ordea, klandestinitatera pasa zen berriro, eta geroztik sasian izan da.

Parisko Entzutegiak, errebel-dian epaiturik, betiko kartzela zigorra ezarri zion 1998ko azaroan, Frantziako Justiziak ustezko ETako kide bati ezarri dion zigorrak handiena.

Azkoiti oso aipatua izan zen espetxean izan zen garaian, ETArekin elkarrizketa bideratzeko solaskide izan zitekeela koan. Joel Cathala PAFeko komisarioak bisitatu ere egin zuen kartzelan, elkarrizketa bideratzeko saioan.

Erredakzioa | DONOSTIA

Jose Luis Arrieta Zubimendi *Azkoiti* errefuxiatua hil egin da, bihotzekoak jota, haren familiak atzo adierazi zuenez. Errefuxiatu historikoa klandestinitatean zegoen azken bederatzi urteetan, 1994. urtean Parisen konfinatuta zegoenean ihes egin zuenetik. Jose Luis Arrietak 55 urte zituen. Emaztea, alaba bat, seme bat eta biloba bat zituen.

1944ko urriaren 14an jaio zen, Azpeitian. Aita azkoitiarra zuelako esaten zioten *Azkoiti*. 11 urte zituela Eibarrera joan zen bizitzera, eta geroztik han izan ditu senideak.

Biltegi batean egin zuen lan,

1969an 25 urterekin Ipar Euskal Herrira ihes egin zuen arte, Poliziak ETArekin lotura zuela uste zuelako.

1986an atxilotua

1986. urtean atxilotu egin zuen Frantziako Poliziak. Sokoa atzemandako arma eta agiriekin zerikusia izatea leporatu eta espetxeratu egin zuten. 1992. urtea arte egon zen espetxean.

Kartzela zigorra beteta ezin izan zuen hala ere Euskal Herrira itzuli, Perpignanera konfinatu baitzuten. Egun gutxi egin zuten Katalunian, handik gutxira Tolosara eraman baitzuten.

1993. urtean, Tolosan zelarik, berriro atxilotu zuten Levert epailearen aginduz, GALEko



TXALAPARTA

Jose Luis Arrieta *Azkoiti*, aspaldiko argazki batean.

Zenbait gauza gaizki ibil badaiteke, arazorik handienak sortuko dituen ibiliko da gaizki.

(Murphyren 17. Legea)

Lokalen jabeek eta ikuskizun-antolatzaileek pertsonak eta ondasunak arriskutik babesteko arauak bete behar dituzte.

(Euskal Herriko Ikuskizun Publiko eta Jolas Jardueren buruzko Legearen 17. artikulua).

Legearen betearazpena zure baitan dago.

Lokalen Ikuskapenerako Eusko Jaurlaritzaren eta udalen Legeak aurreikusita dauka ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko Euskal Herrian erabiltzen diren 18.000 lokal eta instalazioen segurtasun-neurriak egiaztatzea. Horien jabe eta kudeatzaileek legeak exijitzen dituen segurtasun-neurriak betetzeko obligazioa dute, horrela pertsonen eta ondasunen sorraraz lekizkiekeen kalteak ekidindo baitira. **Segurtasuna eskubidea duzu. Exijitu ezazu.**

EUSKO JAURLARITZA

HERRIZAINGO SAILA
Herrizaingo Sailordetza
Joko eta Ikuskizun Zuzendaritza



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE INTERIOR
Viceconsejería de Interior
Dirección de Juego y Espectáculos